

Lankidetzaren ekosistema, mugaz beste aldeko lurraldearen eraldaketa lehiakorrenentzat.

2016/03/01

Gaur egun, erronka asko daude ekonomia eta enplegu arlotan. Iraganaren oinarri lehiakorrek ez dute bermatzen enpresen etorkizuna eta etengabe egokitu behar dira ingurune ezezagunetara. Berrikuntza eta nazioartekotzea dagoeneko ez dira hautazkoak enpresentzat, irau nahi izanez gero eta horren aurrean, euren beharrak asetzen dituen kompetentzia profil berriak eskatzen dituzte. Hala ere, ikerketa sistemaren eskema tradizionalak zaharkituta geratzen ari dira. Mundu akademiko eta enpresa munduaren artean urruntasun handia dago oraindik.

Horregatik, ezagutza sareen nahiz berrikuntzaren agenteen arteko lankidetzaren behar dugu, gaur egungo erronkei zein etorkizunekoiei, era egokian erantzuten dien eredu bat eraikitzeko. Zentzu honetan, Europako instantzietatik, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da ezagutzaren triangulua. Honen helburua, heziketa, ikerketa eta berrikuntzaren arteko lotura estuak sustatzea izango litzateke. Eraitza bezala, ezagutzaren transferentzia handiagoa izango dugu eta baita lankidetzaren mota berriak, ikasketa instituzio, ikerketa erakunde eta enpresen artean.

Mota honetako esperientziak, gure inguruneko agenteetan aurki ditzakegu eta Akitania – Euskadi -Katalunia mugaz beste aldeko eskualdean ere bai. Unibertsitatean, txandaketa ereduak, gero eta indar gehiago hartzen ari da. Ikerketa guneak eta enpresak, elkarrekin lan egiten duten sareak daude eta erakundeek heziketa espezializatuaren proiektuei heltzen dizkiete, batzuetan unibertsitate kooperatiboak osatu arte ere. Hala ere, eta banakako esperientzien harantzago joanda, ezagutzaren ereduak oinarritutako lehiakortasunaren ereduak eraikitzea beharrezkoa da, unibertsitatearen lankidetzaren hirukoitzaren, erakundeen (enpresak) eta pertsonen bitartez. Eredu honek, ikuspegi globala izan behar du, baina era berean egokitu behar da, batez ere, enpresa txikiak dituen mugaz beste aldeko eskualde baten beharretara.

Horretarako, mugaz beste aldeko partzuergo bat osatu da eta bertan hurrengo agenteek hartzen dute parte: MIK eta Bidasoa Aktiboa (Euskadi), Vic-eko unibertsitatea (Katalunia), ESTIA eta Pau-ko unibertsitatea (Akitania). Agente hauek, 3DKNOW deituriko ekosistema garatuko dute. Ekosistema honek lau ardatz ditu eta erlazionatu egiten du, mundu akademikoa, gaur egungo langileekin (jarduera profesionalaren kudeaketa integralaren sistema), etorkizuneko langileekin (txandakako ikasketaren irakaskuntza sistema), eta enprekin (ikerketa sistema eta transferentzia kolaboratzailea). Era berean, ardatz integratzaile bat egongo da, beharrezkoak diren tresna eta ekintza mekanismoak sortzeko, edozein ezagutza zentroak, bere jardueraren garapenean ikuspegi hau izan ahal dezan.

Proiektu hau, inteligentzia lehiakorren espezializazio lerro barnean dagoen 14-20 programazioaren POCTEFA lehenengo deialdira aurkeztu da. Honen emaitzek partners-en jardueretan inpaktu handia izatea espero da, enpresen posizioa lehiakorren hobekuntzan eta beraz mugaz beste aldeko eskualdean ere bai.

